

Aiker!

txorierriko aldi



**Beni Iturrioz,
Txorierrri Institutuko
orientatzailea**

**“Oraindik badaude
oso solidarioak
diren gazteak”**



Argitaratzailea: TOTOAN, Txorierriko Euskara Elkarleen Federazioa
(Lagatzu, Zorritzetan, Arrekikili, Tximintx)
Tf.: 94 452 34 47
e-posta: aikortxori@yahoo.es

Zuzendaria: Xabier Goienetxe

Erredakzio burua: Itxaso Marina

Erredakzio taldea: Fernando Larrondo, Jose Angel Mentxaka, Alberto Legarreta, Gaizka Eguskiza, Mari Tere Onaindia, Amagoia Guezuraga, Belen Gana, Pospolin eta Aritz ta Nagel

Kolaboratzaileak: Iñaki Bilbao, Lurdes Lasuen, Asier Oruetxebarria, Juan Luis Goikoetxea, Jabi Agirre, Joseba Gotzon, Maitane Urrutikoetxea, Aner Mentxaka, Atotz Goikoetxea, Ziortza Sanz, Oihana Astobieta, Gaizka Peñafiel, Sabin Arana eta Ines Serrano

Zuzentzaileak: Alberto Mtz. de la Cuadra, Iñaki Astorkiza eta Jagoba Zallo

Publizitatea: Arantza Atxutegi

Banaketa: Arantza Atxutegi, Gaizka Eguskiza

Maketatzailea: Gaizka Eguskiza

Inprimategia: Gertu

Ale kopurua: 5.000

Lege gordailua: BI 137-02 ISSN 1578-9322

AIKOR! aldizkariak ez dau bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen edota eritxien erantzukizunik.



Eusko Jaurlaritza



Bihaiak Foru Aldundia
Kultura Dala

diruz lagundutako aldizkaria

12 Gurutze Beitia



30 Mal de ojo musika taldea

24 Loiuko pilota eskola



22 Euskara Txorierriko merkataritzan

AURKIBIDEA

4 Eritxia 5 Gutunak 6 Laburrak eta albisteak
12 Gurean izan da... Gurutze Beitia 14 Gazteen txokoa
15 Gaztea eta... Aner Mentxaka 20 Derioztarren
euskara liburua 22 Euskara Txorierriko merkataritzan
24 Pelota Eskola, Loipun 25 Idoia Gordon pilotaria
26 Asiategi, kultura elkarte 28 Osasuna 29 Teknologia
30 Musika... Mal de ojo 31 Txorierrri ezagutu
32 Sukaldaritza 33 Denborapasa 34 Agenda

Bizi-poza



JABI AGIRRE

(Zorritzetan euskara elkartearen kidea)

Haurtzaroa eta bizi-poza bateragarriak dirala ezin dogu ukatu. Eta horretaz jabetzeko, nahikoa da titi-hartzearen osteko jaiobarriaren aharrusia mirestea; edota, geroago, koskortzen danean, eskolako lagunakaz jolasteko orduan agertuko jakon irrikatasunari begiratzea. Eta zer esanik ez, Gabonetako opariek bere begietan sorrarazitako distirea somatzea.

Umearen ordu gehienak —gaueko loa tarteko dala— bizi-pozez dariola dagoz. Bera hazi lakoa da: etorkizunean garatuz joango dan ametsa. Eta jakina, etxeokak dira poz-iturri horren lekukoak eta lehen sarituak, izan be, umeak etxeari emoten deutson alegrantzia ez da makala.

Haziz doan landarea nerabegarora heldu da: “gazteak gara eta ez gaude konforme”. Lagun taldea, ikasketak, bikote-kidea, askatasuna, ametsak, lana, herria, jaiak... Bor-bor irakiten dagoen lapikoa dirudi, lurrinak gainezka egin arterainokoa. “Nork edukiko leuken zure sasoi!” horregaitik entzuten dogu askotan, beharbada.

Halanda be, sua amatatzerainoko egoeren aurrean aurkitzen da noizbehinka: gainezka egiten deutsoen ikasketak, lagun baten galera, langabeziaren mingostasuna, amodioaren kili-kiliak, baldintza eskasetako lana, Euskal Herriaren etorkizuna... Horrelako eta antzeko egoeretatik urteteko, bere adoreaz baliatuko

da gehienetan, edota etxeokoen, lagunena eta hezitzaileen laguntza izango dau. Erraz egingo dau aurrera.

Susterrak sakonduz eta zabalduz doan heinean, landareak erraz jasoko dau janaria enbor indartsutik adarretaraino, sasoioko fruituak ugari emonez. Hainbat udabarritan loratuko da, bizi-poztuko da.

Eta helduaroranzko bidean be makina bat egun eder goza leike ingurukoakaz batera. Etxeko, laneko, herriko eta munduko gorabeherek eragina izango dabe berarengan eta bera be ahaleginduko da horreei erantzuten. Hartu-emon horretatik atarako dauz laguntza eta indarra poztasunez bizitzen jarraitzeko.

Hotz-beroak, edurteak eta ekaitzak arbola astintzen daben lez, norbera be makalduz doa. Urteek ez dabe barkatzen eta egindako ibilbide luzeak eragina edukiko du txanketan, gorputzean, pertsonarengan berarengan. Gero eta sarriagoak izango dira ebakuntzak, protesiak, botikak eta aienetxoak.

*“Mendi-gailurra
bakarrik edota
lagunduta lortu daike
mendizaleak; nik esku
bat alboan gurago dot”*

Zahartzarora heldu eta bizitzan zehar kargatutako bateriatik indarra atarako dau, egun bakoitzari poz-ikutua ezartzeko. Eta behar izanez gero, laguntza be izango dau, poz-txingarra amata ez daiten.

Eta ibilaldia amaitzen danean, gus-tora hartuko dau eskaintzen jakon eskua, hurrengo bidaia luzeari hasiera emoteko. Mendi-gailurra bakarrik edota lagunduta lortu daike mendizaleak eta nik neuk aukeran, gurago esku bat alboan.

Pilotak



JOSEBA GOTZON

(Kantautore eta idazlea)

Loiuko Lagunak Kultur eta Kirol Elkarrekin antolatutako III. Paddle Txapelketa amaitu berria da. Paddlera pilotaz jokatzen da (noski!) eta niri pilota jokoak betidanik gustatzen zaizkit, baina pilota bakoitzak bere ezaugarriak ditu eta horregatik, pilota guztiak ez dira nire gustukoak. Niretzako, hiru pilota mota daude.

Lehenengoak eta gehien gustatzen zaizkidanak palaz jokatzeokak dira. Jokatzeok beste pilotak niri bost axola: golfa, beisbola, gimnasia...

Bigarrenak min egitekoak dira; hots, segurtasun indarrek erabiltzen dituztenak: oso arriskutsuak dira ez baitute begirik, eta terrorea sortzen dute.

Eta azkenik, hirugarrenak eta miserabileenak: boterik ez daukatena eta ez direnak ikusten nondik nora joaten diren. Pilota mota hau beti egon da, “ipurdia miatzkatzen” gaztelaniaz esaten den bezala. Pilota mota honek pertsonaia “txiki-txuak” handi eta inportante bihurtzen ditu ezgauza, kaskar eta gaitasunik ez daukatenei esker. Elkarrekin bizi behar dira, batak besteak gabe ezin baitu protagonismorik eduki. Huntzak bezala gortzen dira. Pertsonaia hauetako asko eskatasun bidean geratzen dira, baina beste batzuek tontorreraino heltzea lortzen dutenean, apo eta sugeak irentsi behar izaten dituzte; bestela, lortutako statusa arriskuan jarriko lukete. Hau da demokrazia honen grazia.

Zeure eritxia agertu gura badozu, gutunen atal hau zabalik daukazu. Ahalik eta eritzi gehienek lekua euki dagien, ez da komeni makinazko 15 lerro baino luzeago idazterik gutunotan. Izena, telefonoa, helbidea eta nortasun agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezker, Aikor!-ek bere esku dauka horretarako eskubidea. Zure eritxia aginduteko helbidea: Totoan, Aresti kalea 2, 48170, Zamudio edo aikortxori@yahoo.es

Pertikerak Pospolinari

Txorierriko zeruetan, lainoa, ustrukua, eguzkia, inisitue, initasia, trumoia, Santa Barbara, hotsak, haizean txistua, Sta. Zezili eta musika beti egon dira. Hasi Erandiotik eta Larrabetzuraino lehengo erromerietako jazbanak eta soinulariak plazarik plaza ibiltzen ziran. Eta inoiz baino hobeto “plaza” esaten dogu. Herriko erromerietako eta domeketako plazako musika euren esku egoten zan. “Plazea” lortzeko subastea egin beharra egoan. Herriko juezak posporoa piztu eta 10 ogerlekotik 10 ogerlekorako subastea egiten eban. Posporoa itzali ordurako

gehien opesakatzen ebanak, horrek lortzen eban plazea.

Han doaz!, soinujolea eta lagunkideak prest erromerian hasteko. Soinularia, fanderolea eta jazbana ziran domeketako nagusiak. Jazban hau bonboa zala esan geinke, baina instrumentoan bertan jazz-band jartzen ebalez ba horra hor “jazbana”. Eurekaz batera, dantzarietako kobretan eutsienak. Erromerian joaten ziranen artean, plazara urten ta dantzan jartzen ziranen arratsalde guztirako hiru pezeta kobratu eta koloreetako tiketa paparrean jartzen jakien.

Hiru txori joan zaizkigu

Errepideak saminez eta amorruez bete gaitu berriro ere. Ez da posible! Ezinezkoa da! Gure buruak ez du gertatu dena sinistu nahi, baina zoritxarrez egia da eta ezin dugu atzera jo.

Dolu-garai honetan isiltasuna eta negarra dira nagusi. Barkatu nire atrebentzia —isilik hobe nengoke, behar bada—, baina elkartasunetik hitz egiten dizuet, izan ere, edonori gerta dakiguke.

Sei gazte, sei familia minduta, apurtuta. Zaila da mina neurtzea; ezinezkoa esango nuke. Hiru txori joan zaizkigu eta utzi duten hutsunea izugarria da,

hasi berria zuten bizitza eten zaielako. Joan zaizkigun horiei zer esan? Gudan jarraitzen duzuela eta oroimen txikiak ere gure artean daudela harri bitxi bihurtuta. Eta gure artean zaudetenei, berriz, indarra, laguntza eta maitasuna adierazten dizuet, bizitza berriari aurre egiteko.

Nahaspila honetan ez da erraza aurre egitea. Buruak eta bihotzak atzera begiratzen dute etengabe eta bizitzako esperientzia gogor horrek zaurituta utziko gaitu betiko. Baina, era berean, momentu hauek ikasbide dira; hausnarketa-gune, bakoitzak bere barrura begiratze-gune. Azken egunotan sentitu dugun berotasuna ez dezagun ahaztu, aurrera egiteko indarrak elkarren laguntzarekin berreskuratuko ditugulako.

Txorierritar bat

Emakumeak be, erromerietan ez, baina euren esku egoan doinuen eta letren transmisioa: “aitite dala tutulun berde...”, “eguzkie joan da...”, “oba oba, loaren goxoa...”. Epertikerak buztana mugitzen daben moduan, arin-arin, eta urteak aurrera egingo doguz. Txorierriko emakume batzuk, astrapala handi barik, musika ulertzen eta gozatzen ahalegin handiak egin dabez. Euren geletatik Txorierriko hainbat gazte pasatu dira adierazpen musikala ikasteko gogoz. Asuan hasita eta Larrabetzuraino, Isabel Martínez, Ana eta Asun Apodaka, Karmele Bilbao, Lorea, Asun Palmou, Iratxe Gezuraga eta Tere Loroñoren eskue-tatik, milaka ume eta gaztek musikaren zaletasuna bultzatzeko hainbat ahalegin egin dabez. Askok hasi baina gitxik amaitu dabez ikasketa osoak. Luzeak dira, gogoia izan behar da eta egunero orduak sartu behar dira instrumentua praktikatuz. Guzti hau dala, mila esker, musika maitatzen irakatsi deuskuzuenoi eta musikariak zarien Tita, Asun, Ana (Goian bego), Karmele, Lorea, Asun, Iratxe eta Tereri.

Fiu-fiu, Epertikerak

Okerrak zuzenduz

Aurreko aldizkarian *Emakumearen gaineko gogoeta batzuk* artikulua argitaratu genuen 28. orrialdean, baina ez zen egilearen izena agertu. Arantza Amondarain ginekologoak idatzi zuen artikulua hori. Beste alde batetik, **AIKOR!** jaialdiaren argazkiak, Aner Mentxakak atera zituen.

Emakumeentzako postontzia jarri dute Derion

Derioko Udalak zerbitzu berria eskainiko die herriko emakumeei hemendik aurrera: emakumeentzako postontzia. Zuriñe Argatza Berdintasuna eta Gazteria arloko zinegotziak azaldu zuen moduan, hori Emakumearen Nazioarteko Egunaren inguruan Udalak antolatutako ekintzetariko bat da eta gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna lortzea du helburu. Horrela, bada, Derioko emakumeek euren zalantzak, iradokizunak eta kexak utz ditzakete bertan. Udalak, bere alde-tik, guztiei erantzuna ematen ahaleginduko da. "Kasuak banan-banan aztertu eta horietako batek laguntza berezirik behar izanez gero, laguntza

hori ere eskainiko dugu". Postontzia udal-etxeke sarreran jarri dute.

Beste alde batetik, emakumeei zuzendutako atala eskegi dute Udalaren web orrialdean (www.deriokoudala.net). Bertan tratatu txarrak pairatzen dituztenentzako telefono zenbakia jarri da eta Emakunde eta Eusko Jaurlaritzarako loturak daude, besteak beste.



Erakusketak eta manga filma Oxangoitiko udaberriko programazioan

Oxangoiti Lezamako Kultur Elkartek hainbat ekitaldi antolatu ditu hurrengo hilabetei begira. Horrela, bada, martxoaren 27tik aurrera *Mundua zerutik* argazki erakusketa izango dute eta apirilaren 24an Japoniako asteari emango diote hasiera. Aste horren barruan, Tokioren gaineko argazki erakusketa antolatu dute eta apirilaren 27an, 20:00etan, *Chihiroren bidaia* umeentzako manga filma eskainiko dute. Filma euskaraz izango da. Eta pintxo-dastaketa ere egongo da arratsaldean. Beste alde batetik, Ray artistaren *Covers* erakusketa edukiko dute maiatzaren 15etik aurrera. Hori olio-pintura erakusketa da eta egilea antzinako cd-etako karatuletan oinarritu da hura egiteko.

Alto Campoora bidaia, Arroetaren eskutik

Arroeta Zamudioko mendi taldeak Alto Campoora joateko bidaia antolatu zuen otsailaren 26an, baina, elurra dela eta, ez zen haraino heltzerik izan. Mendi taldeak erabaki du, beraz, apirilaren 2an bidaia hori berriro antolatzea. Izena emateko epea martxoaren 28ra artekoa izango da.

Bai Eskolak Euskalduntzeari! sinadura bilketa, Txorierrin

Eskolak Euskaldundu ekimenak emandako datuen arabera, Euskal Herriko ikasleriaren %68,2a ez da euskaldunduko eta, horrezaz gainera, gaur egungo hizkuntza politikak ikasleen gehiengo zabalari euskara ezagutzeko eskubidea ukatu egiten dio eta hainbat herrialdetan -Nafarroan eta Ipar Euskal Herrian, esate baterako-



euskaraz ikasteko aukera bera ukatzen du. Horrela, bada, euskal ikasleen %20,7k gaztelera edo frantsesez jasotzen ditu klaseak, euskarazko irakasgairik gabe; %24,6k klaseak gaztelera edo frantsesez jaso eta euskara irakasgai moduan astean lau ordu hartzen du; %16,7k klaseak erdaraz eta beste hainbat euskaraz jasotzen ditu; eta %38k euskaraz jasotzen ditu klase guztiak eta gaztelera edo frantsesa irakasgai moduan hartzen du astean lau orduz. Beste alde batetik, A ereduko ikasle guztiek, B ereduko ikasleen %67k eta D ereduko ikasleen %32k ez zuten euskara maila neurtzeko froga gainditu 2005. urtean.

Datu horiek kontuan hartuta, gaur egungo hizkuntza politika aldatzea beharrezkotzat jotzen dute eta, horretarako, sinadura bilketa antolatu dute Euskal Herri mailan. Sinadura bilketa hainbat eragilek babesten dute: AEK, Kontseilua, Topagunea, LAB eta Euskal Irratiak, besteak beste.

Kanpaina Txorierriko herri guztietan ere zabalduko da eta maiatzaren 6an sinadura bilketa nazionala egingo da. Halaber, kultur ekitaldiren bat egiteko asmoa dago hurrengo hilabetei begira.

Antolatzaileek 100.000 sinadura batzea dute helburu eta Txorierrin 650 firma jaso beharko lirateke.

Lezama Bizirik koordinakundeak legeztatze asmoa hartu du

Iazko ekainean Lezamako herritar eta elkarte batzuek Lezama Bizirik plataforma eratu zuten. Koordinakundeak helburutzat hartu zuen Bilboko Metropoliko Lurralde Plan Partzialak Lezaman izango duen eragina herritarrei jakinaraztea eta plan horri aurre egitea.

Koordinakundeak aurrerapausoa egin eta bere burua legeztatze asmoa hartu du. Horretarako, bazkideak har-

tzeko kanpaina eta taldea legez eratzeko proposamena aurkeztu dizkie herritarrei. Mota bitako partaideak izango dira Lezama Bizirik plataforman: norbanakoak eta taldeak. Dagoeneko 50 bat lagunek eman dute. Arduradunak pozik azaldu dira hasierako erantzunarekin, baina epe laburrean atxikimendu gehiago izango dituztela uste dute. Bazkide egiteko fitxak Lezamako hainbat saltokitan zabalduko dira.

Gazte Olinpiadak, Derion

Martxoaren 18an Txorierriko 70 gazte inguru bildu ziren Deriora, Gazte Olinpiadetan parte hartzeko. Olinpiadak Gazte Topaguneak antolatutako egitarauaren barruan egiten dira eta Euskal Herriko eskualde guztietan egiten dira. Derioko Olinpiadak antolatzeko ardura Txorierriko Gazte Mugimenduak hartu zuen.

Txorierriko kanporaketetan hiru taldek hartu zuten parte, eta, azkeneko probara nahiko berdinduta heldu arren, azkenean Larrabetzukoak nagusitu ziren. Kirol proben ostean, txokolatada eta triki-poteoa izan zituzten. “Giro ezin hobea izan da arratsalde osoan. Erakutsi dugu Txorierriko gazteok badugula gaitasuna herri olinpiada euskaldunak antolatzeko; olinpiadok parte-hartze handikoak izan dira, partaideen parekidetasuna bultzatu dute eta ez dute lehiakortasunik bilatu”, azaldu dute antolatzaileek.

Euskal Herriko finala apirilaren 15ean jokatu da Etxarrin.



Argazkiak: Aner Mentxaka

Bilboko Udalak 100 hegazti eraman ditu Deriora

Argazkia: Gaizka Eguskiza



Bilboko Udaleko Osasun eta Kontsumo Sailak Europa eta Doña Casilda parkeetan zeuden 100 hegazti inguru eraman ditu Derioko Aiartzako Konpost Lantegira, hegazti-gripeari aurrea hartzeko asmoz. Joseba Ruiz de Loizaga zinegotziak esan duenaren arabera, “ez dago gaisotasuna hedatzeko arriskurik, baina gizarte mailan zabaldu den kezka dela eta, neurri hori hartzea erabaki dugu”. Horrezaz gainera, itsasadarrean dauden 20 hegazti gehiago

bertara eroango dituztela adierazi du.

Neurriak kanpoko hegaztiakiko harremanik ez egotea du helburu eta horretarako, negutegi bat moldatu da. Horrela, bada, sareak ezarri dira eta zisneak aparte jarri dituzte, horiek handiak eta erasokorrrak baitira. Beste alde batetik, ahateak, antzarrak edota indioilarrak ere badaude Aiartzan. “Ez dago jakiterik noiz eramango ditugun berriro Bilbora”, gaineratu du Ruiz de Loizagak.

Lezamako gazteek patinatzeko U-a jartzeko eskatu dute

Martxoaren 17an, hainbat gazte Lezamako Udaletxean bildu eta patinatzeko U-a jartzeko eskatu zuten. Gaztetxoek U antzeko bat inprobisatu zuten Udaletxeko aterpe-



an; beste alde batetik, alkateari eskari bat bidali zioten eta kontzentrazioa egin zuten.

Gaztetxoaren esanetan, herriko parke batean patinatzeko U-a zegoen lehen, baina bertatik kendu eta beste parke batera eraman zuten. “Guraso batzuk kexatu egin ziren, ume txikiak arriskutsua zelako, eta berriro kendu zen. Hala ere, ez dute inon jarri”. Lezamako 50 bat gaztek U-a erabiltzen zuten patinatzeko, “eta orain ez dugu patinetek ibiltzeko lekurik”.

Beste alde batetik, Luis Ramon Alvarez Lezamako alkateak azaldu digu U-a Lapiko biltegi ondoan zegoen parketatik kentzea erabaki zela, “alde batetik, zarata dela eta auzokoak kexatu zirelako, eta, bestetik, gauzez gazte helduagoak bertan biltzen zirelako motorrez eta kotxez”. U-a frontoi txikiaren eta eskolaren artean dagoen parkean jarri zen berriro, baina Guraso Elkarteak eskola ondoan ipintzea ez zela egokia adierazi eta berriro kendu zuten. Udalak ez du oraindik erabaki non jarri, “kiroldegia ixteko beharretan gabilta eta obra hori bukatu ostean, kiroldegi barruan U-a jartzea baliteke, baina ez dakigu ziur. Alde guztiak aztertu behar ditugu, erabakia hartzeko orduan”.

Mendiko bizikleta eskola, Derion

Euskadi Fundazioak mendiko bizikleta eskola martxan jarri du Derioko Pedagogi Gelan. Alvaro Gonzalez de Galdeanok eskolaren ardura hartuko du eta bertan 150 gazteentzako lekua izango da. Proiektuak gaztetxoek txirrindularitza sakon ezagutzeaz gainera, horiek errepideko ziklismoa praktikatzera animatzea du helburu.

Eskolarekin batera, 20 eta 25 km-ren bitarteko bidegorri bat egingo da. Hori Larrabetzuti Erandioko Landara arte izango da eta Txorierriko Udalek parte hartuko dute egitasmoan.

Apezetxea finalista, Valentziako Argazki Lehiaketan

Otsailean Valentziako VII. Argazki Profesional Lehiaketa izan zen, bertako argazkilarien elkarteak antolatuta, eta Zamudioko Oskarbi Fotografoak estudioko Joseba Apezetxea finalista izan zen bertan. Apezetxeak sei lan-erreturatu bi, industria-publizitatearen arloko argazki bi eta sortze-libreko argazki bi-aurreztu zituen, eta epaimahaikoek publizitatearen arloko argazki bat aukeratu zuten finalerako. Orotara, 1.200 argazki aurreztu ziren eta izen handiko argazkilariek osatu zuten epaimahaia.

Apezetxea pozik azaldu da lortutako emaitzarekin. Hala ere, argazkilari on asko dagoela ikusi du. Gauzak horrela, argi du helburua ahalik eta gehien ikastea eta ikasitakoa bere lanetan islatzea izan behar duela.

Auziperatuak eta haiek ordezkatzan dituzten antolakundeak epaitzen ari direla dio Meñikak

Otsailean 18/98 makrosumarioaren ahozko ikustaldiari berriro ekin zioten Madrilgo Auzitegi Nazionalan. Ibon Meñika zamudioztarra sumario horren barruan epaitu zuten iaz Euskal Herriko beste gazte batzuekin batera, ETA laguntzaile izatearen akusaziopean. Gaztearen esanetan, Jarrai, Haika eta Segi taldeen epaiketa aurreratzeak ez zuen logika juridikorik eduki, “izan ere, egunotan epaitzen dabilzana beste sumario guztien ardatz nagusia da, euren tesiaren arabera. Baina gazte batzuek behin-behineko espetxealdia amaitzeaz zuten eta ez zituzten epaiketarik gabe kaleratu nahi”.

Beste alde batetik, epaiketa horren bitartez auziperatuak ez ezik haiek ordezkatzan dituzten antolakundeak, mugimenduak, komunikabideak eta abar ere epaitzen ari zaizkiela aipatu du. “Epaiketak eskubide zibil eta politikoak urratzen ditu eta, horrezaz gainera, epaia aplikagarri bihurtu daiteke eta ondorioz, eragina izan



dezake datozen epaiketetan, baita gazte erakundearen epaiketan ere. Horrela, bada, defentsak zein akusazioak epai horren kontra errekurtsoa egin eta Auzitegi Gorenera jo zuten”.

Herritarrak horretaz guztiaz jabetzea ezinbestekotzat jotzen du Meñikak. “Gure epaiketa izan zenean, epaiketa justua edukitzeko eskatu genuen 18/98 + plataformatik, eta handik hona epaiketa gehiagorik ez izateko aldarrikatzera pasatu gara”. Jendeak makrosumarioaren eta horren ondorioen gainean gero eta ezagupen handiago duela dio, “eta horrek aurrerapausoak egiten gabiltzala esan nahi du”. Plataforma antolatutako kaierak, eskubide zibil eta politikoaren aldeko egunak eta otsaileko manifestazioak izan duten atxikimendua horren adibide garbia da. Hala ere, lan handia egiteko dago oraindik, eta hainbat ekintza egitea aztertzen dabilta; haien artean, diru bilketa egingo dute, epaiketatik eratorriko gastuak auzipetuei ordaintzen laguntzeko.

Derioko bizilagunek telefono mugikorreko antenak kentzeko eskatu dute

Derioko bizilagunek 823 sinadura eraman dituzte Udaletxera eta herrian dauden telefono mugikorreko 10 antenak kentzeko eskatu dute. Antena horietako bi Herriko Plazako etxe-orratzetan daude; beste zazpi Seminarioan eta bestea Magefesa enpresan.

Etxe-orratzen ondoan bizi diren lagunek antenak jarri zituztenetik hona, hainbat osasun-arazo izan dituztela adierazi dute, “askok insomnia dugu, buruko mina, hiperaktibotasuna, defentsaz pattal gabiltza...”. Horrezaz gainera, zenbait dokumentu batu dituzte eta antenen frekuentzietan osasunean eragin kaltegarriak dituztela azaltzen da bertan.

Haserrea nagusi da auzotarren artean, “etxean lasai bizitzeko eskubidea dugu,

baita gure osasuna babesteko eskubidea ere. Eta antenek sortutako eraginaren gaineko zalantzarik izanez gero, gaixotasuna prebenitu eta osasunaren alde egin behar da”.

AIKOR! aldizkaria udal teknikariarengana jo, eta telekomunikazioen legeria Estatuaren eskumena dela esan digu, “eta enpresa batek legea betetzen badu eta antena jarri nahi duen lekua urbanistikoki bideragarria bada, ezin diogu lizentziarik ukatu”. Udalak hainbat osasun erakundek egindako txostenak batu ditu; txosten horien artean ez dago gaixotasunen eta antenen arteko kausa-efektu erlazioa dagoela adierazten duen testurik. Beste alde batetik, Telekomunikazio Ordezkaritzak

Derioko etxe-orratzean jarritako lehenengo antenak sortzen duen eremu elektromagnetikoaren maila neurtu zuen 2002. urtean azken aldiz. Neurketa horren arabera, eremuaren mailarik handiena 1,62 V/m izan zen eta 2001. urtean onartutako errege-dekretuak 41 V/m hartzen du erreferentzi mailatzat. Horrezaz gainera, Bizkaiko Foru Aldundiak ikerketa pilotu bat egin zuen iaz Txorierrin, sakelako telefonoen eta haien antenen erradiazio-maila ezagutzeko. Ikerketaren arabera, erradiazio-maila legeak onartutakoa baino 33 aldiz txikiagoa zen, “eta hura muga baino 50 aldiz txikiagoa da”. Auzotarrek bildutako sinadurak Ministerioaren Ordezkaritzara eramango ditu Udalak.



Gurutze Beitia, aktorea

“Bizitzari barre eginez egin behar diogu aurre”

Cocidito madrileño zein *Todos nacemos vascos* lanek arrakasta handia izan dute. Modan dago euskal kutsua duena?

Ez dakit modan dagoen orokorrean, baina euskaldunon artean bai. *Vaya semanita* saioa aitzindaria izan da zentzu horretan. Gainera, sanao dela uste dut geure buruaren gainean txantxetan ibiltzea, gure ohituraren gainean, gure kirolen gainean...

Euskaldunok serioak garelako diote; hala ere, *Vaya semanita* saioak telebistakatez aldatu zirenean, gure humorea kanpoan ez zela ulertuko esan zuten batzuek...

Ez dakit *sktech* guztiak ulertuko ziren: nire ustez, *Los Sanchez* bertan kanpoan baino hobeto ulertzen da, errealitate hori bizi dugulako; *La cuadrilla* esportagarriagoa da, beharbada, gizonezkoak leku guztietan elkartzen direlako... Egia esan, ez dakit gure humorea ondo ulertzen den, ezta eus-

Gurutze Beitia duela gutxi izan dugu Derioko Larrabari baserrian. Bilboko aktoreak emakumearen gaineko mahai inguru batean parte hartu zuen bertan.

kal humorerik dugun ere... Eta euskaldunok seriok garen? Hasiera batean, apur bat agian bai, baina lagunak eginez gero, betiko egiten ditugu.

Antzerkia egiten duzu, telebista, laburmetraiak, bakarriketak, otarrainxka batzuen aurka borrokatu duzu...

Lagunek “todoterreno” naizela diote. Diziiplina guztiak ukitzea gustatzen zait, batzuek ez dutelako zer ikusirik besteekin. Hala ere, aitortu behar dut antzerkirako grina handia dudala; taula zapaldu eta nire aurrean publikoa izatea gauza itzela da niretzat. Baina telebista ere gustatzen zait, beste era batean lan egiten delako... Eta zinema; izan ere, esaldi bat baino ez dut

bota film batean, baina genero hori lantzeko gogo badut.

Eta lan horietan guztietan humorea da nagusi. Eroso zaude erregistro horren barruan?

Bai, barre egitea izugarri gustatzen zait eta bizitzari barre eginez egin behar diogula aurre uste dut, bizitza oso gogorra delako. Batzuetan, ganorabakoa naizela eman dezake baina, oso serioa naiz lanari eta nire bizitzari dagokienez... Baina barre egin behar badugu, nahiko “payasa” izaten ahalegintzen naiz, jendeak barre egitea izugarri gustatzen zaidalako. Beste alde batetik, humore generoaren barruan sailkatzen ari zaidala uste dut. Hala ere, inoiz gusta-

tuko litzaidake erakustea publikoa momentu sentibera batera eramateko gauza ere banaizela. Dena den, humorea egiten oso gustura nago.

Lan neketsua da beti graziosoa izan behar izatea?

Hori daukagun arazoetariko bat da: kaltetik joan eta “aizu, kontatu txisteren bat!”. “Eta zu zer zara?”, nik. “Iturgina”, berak. “Ba, jarri zuk tutu bat”, nik. Jendeak egun osoan barre egiten nabilela pentsatzen du eta mundu guztiak bezala, nik ere baditut

*“Inoiz erakustea
gustatuko litzaidake
publikoa momentu
sentibera batera
eramateko gauza
ere banaizela ”*

momentuak eta momentuak.

Eszenatoki gainean ere momentuak eta momentuak izaten dira...

Egun txarrak dituzu, baina publikoak zu ikusteagatik ordaindu du eta profesionala izan behar zara, hankako mina izan arren...

Eta publikoari barre eragitea lortu ezean, nola ateratzen da airoso egoera horretatik?

Bakarrizketaren batean gertatu zait, baina ni natural-natural: “Ez duzue harrapatu, e?” edota “Hori lotsa! Ez dizue graziarik egin!”. Momentu estuak dira eta era batean edo bestean egin behar da aurrera.



Juan Ramon Ruizek bigarren saria lortu zuen



Lehiaketan herriko 14 gaztek parte hartu zuten

Loiuko gazteek badute euren logotipoa


Loiuko Udalak antolatutako Logotipo Lehiaketaren sari banaketa izan zen herriko Kultur Etxean otsailaren 23an. Iñigo Blazquezen Kukulukoak izeneko lanak lehenengo saria eskuratu zuen bertan.

Loiuko Udalak hainbat ekintza antolatzen dabil Gazte Planaren barruan eta horietako bat Logotipo Lehiaketa izan da. Lehiaketa Iñigo Blazquezek irabazi du. "Herriko 14 lagunek parte hartu dute eta, egia esan, oso lan onak aurkeztu dira. Baina Iñigok egindakoa aukeratu dugu, Gazte Planaren izaera ederki islatzen duelako. Begiradatxo bat bota eta berehala konturatzen zara gazteei zuzenduta dagoela", esan digu Etor Irazola kultura zinegotziak. Horrela, bada, logotipo hori Loiuko gazteei bidaltzen zaizkien agirietan erabiliko dute hemendik aurrera.

Iñigok 500 euroko txekoa eta motxila bat -logotipoa bertan inprimatuta- jaso ditu saritzat.

Beste alde batetik, Juan Ruizen Berrintasuna lanak bigarren saria lortu duela aipatzekoa da. Gazteari 150 euroko txekoa eta motxila bat eman dizkiote saritzat; beste partehartzaileek motxila bana jaso dute. Orotara, 32 logotipo aurkeztu dira. Loiuko Udala Gazte Planerako berezko logotipoa sortu duen Bizkaiko lehenengo udala da.

Testua eta argazkiak: Itxaso Marina



Iñigoren Kukulukoak

Gazteak 17 urte ditu eta halako lehiaketa batean parte hartu duen lehendabiziko aldia izan da.

Lehendabiziko aldia izateko, emaitza ona izan duzu...

Ordenagailu bidezko diseinua izugarri gustatzen zait eta aitak lehiaketan parte hartzeri animatu ninduen. Izena ere berak jarri dio lanari.

Zeren bila ibili zara diseinua egiteko orduan?

Zerbait freskoa eta modernoa egin nahi nuen, gazteok berehala identifika dezakegun logotipoa hain zuzen ere. Hainbat zirriborro egin eta Kukulukoak agertu ziren azkenean. Lan bi aurkeztu nituen lehiaketara eta oso pozik nago.

Aner Mentxaka, ikus-entzunezko rallyan partehartzailea

“Euskal Herrian jende asko mugitzen da bideo sorkuntzaren inguruan”

Aner Mentxakak, 21 urteko derioztar gazteak, Topaguneak Eibarren antolatutako Euskal Herriko lehen ikus-entzunezkoen rallyan hartu du parte. Bazter hauetatik ez da oso entzuna rally mota hori eta beragana jo dugu, gehiago jakin gurean.

Ezer baino lehen, azaldu zer den ikus-entzunezko rally bat.

Argazki rallyak ezagunagoak dira, hau da, ordu gutxitan momentuan emandako zenbait gairen inguruko argazkiak ateratzea. Ikus-entzunezko rally batek filosofia berbera mantentzen du: gai bat eta derrigor agertu behar diren leku batzuen zerrenda ematen dizkizute, goiz guztian sekuentziak grabatu behar dituzu eta arratsaldean muntaketaren txanda izaten da. Iluntzean denak proiektatu eta sariak banatzen dira. Atsedetik gabeko 12 orduko lana da.

Egun batean posiblea da ikus-entzunezko bat pentsatu, grabatu eta muntatzea?

Bai. Talde batek posible dela erakutsi zuen. Hala ere, gaiak ez zuen mugarik jartzen ("hamaika ikus-entzuteko jaiok gara"), eta talde gehienek guztiz prestatuta eraman zuten lana, grabatzea soilik geratzen zitzaien.

Nortzuk ziren zure taldekideak?

Andoainen errealizazioa ikasten klase berean geunden hiru lagun aurkeztu ginen. Arbizuko (Nafarroa) Katrin, Zarausko Aritz eta neu. Rallya aitzakia bat besterik ez zen izan berriz batzeko, udatik ez genuelako elkar ikusten. Gainera biek, lan kontuengatik, gaupasa eginda etorri behar izan zuten.

Zer da beharrezkoa holako film txiki bat egiteko?

Idea on bat izatea eta ahalik eta era konprimituenean kontatzea. Sarritan burutazio handiak izaten dira, baina ez da asma-tzen ideia ondo bideratzen.



Zelan joan zitzaizuen? Saririk jaso zenu-ten?

Goizeko 7etan irten eta goizaldeko ordu batetan bueltatu ginen etxera. Gogo handia eduki behar da parte hartzeko, baita pazientzia handia ere, Eibarko auto-ilaretan nerbioak ez galtzeko. Eta gainera zure taldekideak gaupasa eginda egoteak ez du batere laguntzen. Niretzat berria zen ikus-entzunezkoen rally bat, ez dut uste ingurutan inoiz egin denik. Gehien bat besteen

“Sarritan burutazio handiak izaten dira, baina ez da ideia ondo bideratzen”

lanak ikusteko balio izan digu eta baieztatzeko Euskal Herrian jende asko mugitzen dela bideo sorkuntzaren inguruan eta hauen emaitzak ikustea oso zaila zaigula. Hiru sari banatu ziren, 14 partaideen artean, eta guri ez zitzaigun batere egokitu, ezta merezi ere, (kar, kar).

Asmoa duzue gehiagotan parte hartzeko? Badirudi hurrengo abenduan rallyaren bigarren edizioa egiteko ideia badagoela. Eguna heltzen denean ikusi beharko da. Hala ere, aurtengoa esperientzia hartzeko izan da, eta hurrengoan, aurretiko prestakuntzarik gabe ez dut uste parte hartuko dugunik. Bakoitza probintzia batetako izanda, zaila da horrelako zerbait koordinatzea.

Testua: Bestorre / Argazkia: Topagunea

“Gurasoak beti egon behar dira

**Beni Iturriozek zazpi urte daramatza orientatzaile moduan lan egiten Txorierrri Institutuan, eta aurretik beste ikasturte bat eman zuen Arratiako institutuan. Pedago-
goak orientazio akademiko-profesionala eskaintzen die ikasleei eta euren familiei. Beste alde batetik, ikas-
ketekin lotutako arazoei zein problema pertsonalei aurre egiten ere laguntzen die gazteei.**

Testua eta argazkiak: Itxaso Marina



Ume bat hezteko, tribu osoa behar zela esan zuen behin Amerikako indio batek. Benik bat egiten du baiezen horrekin

Behin baino gehiagotan entzun dugu ga-
ur egungo gazteak ez direla pertsona
konprometituak, nahiko pasotak dire-
la...

Beno, pasotak belaunaldi guztietan izan
dira. Gazteak benetan interesatzen zaiz-
kien gauzez arduratzen dira orokorrean.
Hala ere, beste kontu batzuei dagokienez,
zain dauden sentsazioa dut batzuetan; ez
direla azken momentura arte mugitzen.
Matrikula egiteko garaia jar dezakegu adi-
bide moduan.

**Urte gutxi dira zazpi urte; hala ere, alde-
rik nabaritu duzu gazteen artean?**

Alde handirik ez dago, baina lehen ez
zegoen figura bat gero eta nabariagoa da
beheko mailetan: tirano edo enperadorearen
sindromea. Nerabe horiek nahi dutena
egiten ohituta daude, etxean jaun eta jabe
izaten dira eta, kasu batzuetan, oso egoera
larriak sortzen dira. Zergatik? Gizartearen
kontua da. Gurasoak lanetik nekatuta aile-
gatzen dira etxera, eta askotan ez dute
seme-alabekin eztabaidatzeko gogorik;
ondorioz, gaztetxo horiek hartzen dituzte
eurek hartu behar ez lituzketen eraba-
kiak...

*“Tirano edota
enperadorearen
sindromea gero eta
nabariagoa da beheko
mailetan”*

Errua beti gurasoena.

Ez, gurasoek ez dute beti errurik. Familia-
ren papera oso garrantzitsua da, txikitan
umearen nortasuna lantzen delako, batez
ere. Baina Ameriketako tribu indiar bateko
buruak behin esan zuen moduan, tribu
osoa behar da ume bat hezteko. Beste alde
batetik, errua kanpotik datorren ustea
zabalduta da gazteen artean, baina haiek
dira euren egiteen jabe; haiek dira azken

seme-alabekin hitz egiteko prest”

hitza dutenak.

Zein gaik kezkatzen dituzte gazteak?

Nik oso ikuspegi mugatua dut horren inguruan, izan ere, eurekin ikasketei buruz hitz egiten dut gehienbat. Dena dela, gai asko interesatzen zaizkiela pentsatzen dut; nirekin lantzen dituztenak baino gehiago, ziur asko. Institutuan hainbat gai jorratzen ditugu tutoretzen bidez —sexualitatea eta droga, esate baterako— eta ikastaroak ematera pertsona adituak ekartzen ahalegintzen gara. Gazteek oso ondo erantzuten dute normalean; hala ere, batzuk ikastaroren bat hondatzen saiatu dira inoiz.

Behar den moduan hitz egiten zaie?

Gu egia esaten saiatzen gara beti, gezurrak esateak ez duelako ezertarako balio eta gazteak beldurtzeak ere ez duelako laguntzarik ematen. Eta informazioa emateaz gainera, gazteak hausnarketa egitera bultzatzen ahalegintzen gara. Beste era batean hitz egin behar zaie? Eurek baietz esango zuten, ziur asko. Eta entzuten dutena gustukoa ez izatea ere gerta daiteke, baina guk ezer gutxi alda dezakegu alde horretatik: hezitzaileak gara, ez lagunak.

Hori oso argi eduki behar da...

Ikasleek zein irakasleok eduki behar dugu argi, izan ere, mugak galdu egiten dira batzuetan eta nahiz eta orokorra ez den izaten, gaur egun badira tratu txar psikologikoak jasotzen dituzten irakasleak.

Nola ailegatzten da puntu horretara?

Gazteei ez zaizkielako txikitan jarrera desgokiak zuzendu. Eta, ondorioz, portaera horiek nabariagoak dira nerabegarora aile-



Heziketa oso prozesu luze, zail eta nekagarria da eta momentu konkretu batean etsitzea oso erraza da, baina hori gero ordain daiteke, Iturriozen ustez.

“Gazteek entzuten dutena gustukoa ez izatea gerta daiteke, baina guk ezer gutxi alda dezakegu alde horretatik: hezitzaileak gara, ez lagunak”

gaten direnean. Hala ere, helduz doazen heinean, baretu eta berez zuzentzen dituzte euren jarrerak. Baina ezin dugu orokortu: gazte asko oso errespetutsuak dira.

Heziketa oso prozesu luze, zail eta nekagarria da eta momentu konkretu batean etsitzea oso erraza da: “beno, gaur logela jasotzen ez badu, ez da ezer gertatuko”. Ba, hori gero ordainduko da. Gurasook oso sistematisuak izan behar dugu, baina, noski, zoratu gabe.

Presio handirik jasotzen dute gazteak?

Presioa baino gehiago, estresa esango nuke. Gauzak oso arin mugitzen dira gaur egungo gizartearen —Internet, informazio pilo bat leku guztietatik...— eta asko larritzen dira, ezin direlako guzietara heldu. Hori, batez ere, neskei gertatzen zaie, perfektionistagoak direlako; ikasketei dago kienez gehienbat.

Gizarteak ere lehiakorrak izatera bultzatzen ditu...

Ereduak aldatu dira: duela 50 urte pertsona ausartak, lagunkoiak eta solidarioak genituen eredutzat eta gaur egun eredu indibidualistak nagusitu dira. Horiek ez dira kasualitatez sortu, eta badute eragina gizartearen. Eta Hezkuntzaren zereginetarikoa bat eredu horiek geldiarazi eta orekatztea da. Egia da gero eta jarrera desatseginagoak agertzen direla —ez dizut apunterik utziko, nireak direlako...—, baina oraindik badaude oso solidarioak diren gazteak.

Zaila da nerabea izatea?

Abentura da, hainbat eredu eta arauarekin apurtu behar dutelako, nortasun propioa eraikitzeko. Baina nerabea izatea beti izan da zaila, orain eta duela 100 urte.

Eta nerabe baten gurasoak izatea?

“Gurasoa izateko ez da prestakuntza berezirik behar, zentzua izatea nahikoa da”

Bai, eta gaur egun zailagoa, gainera. Lehen seme-alaba gehiago izaten ziren eta horien hezkuntza gurasoen ardura ez ezik familia osoaren ardura ere bazen. Baina gaur egun seme-alaba gutxi izaten dira —bat edota bi, gehienez jota—, eta horiek perfektuak izan behar dute, gainera. Guraso asko larritu egiten dira eta ez dute euren burua seme-alabak hezteko gauza ikusten; hala ere, hori ez da egia: gurasoa izateko ez da prestakuntza berezirik behar, zentzua izatea nahikoa da.

Zein gaik kezkatzen dituzte?

Niri azaltzen dizkidaten kezkarik gehienek zer ikusia izaten dute ikasketekin, baina, horien atzean arazo larririk egonez gero, bigarren mailan uzten dituzte ikasketak. Benetan kezkatzen dituen da seme-alaben osasun mentala eta pozik bizi izatea.

Gazteak hezi beharra dago; gura-

soak hezteko beharrik?

Prestakuntza behar baino gehiago, laguntza jasotzea eskertzen dutela uste dut. Esaten dute umeek ez dakartela erabilera-eskulibururik, eta guraso asko gehiegi larritzen dira kontu horrekin. Izan ere, lehen esan dudan moduan, ume bakarra edo bi izaten dira eta “dena perfektu” atara behar da heziketa prozesuan.

Gutxitan hitz egiten dute seme-alabekin?

Seme-alabek eurekin hitz egiten ez dutenarekin kezkatzen dira guraso asko, baina ohiturak eraiki behar dira eta horrezaz gainera, beti egon behar gara seme-alabekin berba egiteko prest; hau da, ez soilik guk nahi dugunean, baizik eta eurek behar duten guztietan. Nerabe batek gurasoekin kezka eta arazoak konpartitzeko ohitura badu, beti egingo du.

Gauza gehiegi dute gaur egungo nerabeek? Sakelako telefonoa, DVDa, bideo-jokoak kontsola...

Oso korapilatsua da gai hori. Arrazoi askorengatik erosten zaizkie seme-alabei hainbat gauza, baina arrazoi nagusia hau izaten da: besteek ere badutelako. Eta horren atzetik beste batzuk ere egon daitezke:

gurasoek txikitzen ez dutelako holarik eduki, seme-alabekin denbora gutxi ematen dutelako eta hutsune hori betetzeko beharra dutelako... edo batzuek seme-alabak gainetik kendu nahi dituztelako, zergatik ez. Sakelako telefonorik behar du nerabe batek? Ba, agian bai, baina telefono bat, eta ez egundoko tramankulua. Izan ere, askok azken teknologiako telefonoak dituzte: jolasteko balio diete, bideo bat grabatu eta lagunei bidaltzeko aukera ematen diete...

Gazte kontsumitzaileak hezten ari gara?

Bai, denbora librean zer egiten duten galdetu eta honelako erantzunak emango dituzte: trago bat hartu, zinema joan, bideo bat ikusi... Guztiek badute zer ikusia kontsumoaren. Eta beste zer egi-

Iñaki, Gorka eta Alain gogoan

Inauterietako oporretatik Institutura bueltatzea gogorra izan da bertoko ikasleentzat; izan ere, hiru ikasmahai hutsik topatu dituzte. Ikasmahai horietan Iñaki, Gorka eta Alain esertzen ziren. Mutilak auto-istripuz hil ziren otsailaren 26an, Larrabetzun. Ikasleek gogoeta batzuk idatzi eta erre zituzten, eta hiru zuhaitz landatu zituzten gazteen oroimenez.

Zelan daude ikasleak?

Istripua oporretan geundela gertatu zen eta, hori dela eta, irakasleok gauzak hobeto planifikatu ahal izan ditugu. Ikasleek ere berria onartzeko denbora izan dute; hala ere, batzuk lur jota ibili dira. Aditu batek eta Mankomunitateko psikologoak laguntza psikologikoa eman diete eta gazteren batek laguntza berezirik behar izanez gero, Mankomunitateko psikologoak jarraituko du berarekin lan egiten.

Heriotza beti da latza, baina oso mutil gazteak direnean...

Gazteek hobeto hartzen dute edadeko pertsonen heriotza, euren gandik urrunago daudelako. Eta orain hil direnak ondokoak izan dira, betiko lagunak, eskolan hainbat urte eman dituzte elkarrekin... eta hutsune bat badago. Baina gaitutuko dute azkenean, ez dago beste erre-mediorenik. Doluak bere denbora eta prozesua ditu eta prozesu horri jarraitzen utzi behar diogu. Denbora pasatu ahala, gauzak baretuz joango dira.





Nerabea izatea abentura da, hainbat eredu eta arauekin apurtu behar delako

nik ez dagoela esango dute, gainera. Baina badaude: kirola, naturaz gozatu... Egia da batzuek kirola egiten dutela; hala ere, futbol partida bat —esate baterako— jokatzen dutenean, talde batean sartuta daudelako eta partida ofiziala jokatu behar dutelako egiten dute; ez dira lagunekin elkartzen partida bat jokatze hutsagatik edota lagunekin elkartze hutsagatik.

Eta askok Interneten edota messenger-ean orduak eta orduak ematen dituzte...

Eta bide hotza eta engainagarria da, gainera. Baina alde batetik, ulertu egiten dut: lagunak urrun izaten dira askotan, eta Internet haiekin harremanetan jartzeko bidea ere izaten da. Beste alde batetik, gazterik gehienek hamaika gauza egin behar izaten dituzte egunean zehar: eskola, partikularrak, etxerako lanak... eta, dena bukatzen dutenean, oso berandu izaten da eta ez dute kalera irteteko aukerarik izaten. Lagunekin komunikatu egin behar dira

nolabait, eta horretarako, Interneten eta messenger-ean topatu dute tresnarik egokiena.

Ekintza gehiegi egiten dituzte? Musika, futbola, igeriketa...

Izan ere, ume bakarra izanez gero, hori onena izan behar da... (kar, kar).

“Umeek erabakiak hartu behar dituzte, baina ahal duten neurrian”

Bale, baina galdetu beharko zaie egiten dituzten ekintzak ea benetan egin nahi dituzten...

Heziketa prozesuan guztiok hartu behar ditugu erabakiak, baina ahal dugun neurrian. Hau da, umea txikia denean, gurasoek hartu behar dituzte erabakirik gehienak, eta, ume hori helduz doan heinean, pixkanaka-pixkanaka autonomia handiagoa eman behar zaio, berak hartu behar dituen erabakiak har ditzan. Eta horrela erabaki horiek guztiak berak hartzeko gauza izan arte. Gaztetxoei proposamenak egin behar zaizkie: kirola egitea ona bada, zergatik ez kirol talde batean parte hartzea? Ohitura hori lantzen bada, gaztetxoak berak azkenean esango du gustatzen zaion ala ez; edota beste ekintzaren bat egitea gustatuko litzaiokeen.



Derioko Cormoran dendan eta Larrabetzuko Etorki tabernan euskaraz ipini dabez errotuluak


Txorierriko merkataritza euskeragaz

Txorierriko merkataritzan euskerak aurrera egitea dau helburu Merkataritza Euskalduntzen kanpainak. Helburu hori lortzeko, merkatariei materiala emoten jake doan, errotuluak, agiriak, etiketak eta abar euskeraz ipini dagiezan. Derio, Larrabetzu, Lezama, Loiu, Sondika eta Zamudioko 101 denda sartu dira hitzarmen horren barruan.

Kanpaina dala eta, Txorierriko merkatarien euskalduntze indizeak % 3ko igoera izan dau urte bakarrean. Beste alde batetik, merkatariek eskatu dituen errotuluak eta itzulpenak 200dik gora izan dira. Euskeraren egoera hobetzeko, 40 aldaketa egin dira: bisita txartelak edo plastikozko poltsak euskeratzea, behargin euskaldunak kontratatzea eta abar. Hamen adibide batzuk: Alberdi Derioko okindegiak euskeraz ipini ditu errotuluak; Politena Larrabetzuko tabernan menua euskeraz dago; Aurregoiti Loiuako jatetxeko behargin bat euskera ikasten dabil eta Proplanos Sondikako kopia denda tike-tak eta fakturak euskeratu ditue, baita Zarate Zamudioko harategian be. Zerurena Sondikako jatetxeak aplikazino informatikoak be ipini ditu euskeraz.

Beste alde batetik, Txorierriko zenbait ikastetxek, alkartek eta euskaltegik laguntasuna emon dabe euskerak merkataritzan dauen presentzia aztertzeke. Eta lan horren ondorioa hau da: Txorierrin merkataritzako hartu-emonak ia oso-osorik euskeraz egin leitekez; ahoz, batez be. Idatziz gatxagoa da dana euskeraz egitea, beharbada, baina zati handi batean egitea bai egin leitekela.

TXORIERRIKO HITZARMENKIDEAK HERRIKA



Iturria: Txorierriko Mankomunitateko Euskara Zerbitzua / Argazkiak: Artez Euskara Zerbitzua

“Herri elebiduna gara eta naturaltasun osoz hartu behar dogu hori”

Zerurena jatetxera deituz gero, eta etxean inor ez badago, Xabi eta Iñakiren ahotsa azalduko jaku erantzungailuan. Baina ez deuskue esango kanpoan dagozala eta mezua ixteko, ez; *Loreak Udan* kanta abestuko deuskue. Oruetxebarria anajeak 2000. urteko abenduan zabaldu eben jatetxea, eta handik aurrera, ahalegin handiak egin ditue euskera eta euskal kultura bezeroen artean zabaltzen.

Testua eta argazkia: Itxaso Marina

Euskeraren aldeko apustua egin dozue jatetxean...

Beno, euskerari lehentasuna emon arren, hizkuntza biak erabiltzen doguz, izan be, gauza normaltzat daukagu: herri elebiduna gara eta naturaltasun osoz hartu behar dogu hori.

Bapio jateaz ganera, euskera eta euskal munduan murgiltzeko aukera dogu bertan...

Hasiera-hasieratik aste tematikoak antolatu doguz, kulturako edozein arlo landuz. Euskeraren ganeko hausnarketak be egin dira eta azkenetan Josu Nabaranek egindako ikerketak izan doguz aztergai. Ekintza kulturalaz aparte, aplikazio informatikoak euskaratu eta menuak, karta, faxak eta abar euskeraz zein gazteleraz eduki doguz beti. Beste alde batetik, gauza berezia egin dogu publizitate arloan: Bitoriano Gandiagaren olerkiak, Oteitzaren pentsamenduak... tresnatzat erabiltzea, gure jatetxea ezagutze-
ra emoteko. Horrela, bada, edonork daki zer eskaintzen dan jatetxe batean, baina helburua da jendeak jakitea gurean eskaintza kulturala be badagoela.



Jatetxea tresna ona da euskal kultura zabaltzeko?

Jatetxea tresna ona da, edozein gauza zabaltzeko. Bezeroak gosez etortzen dira, burua itxita dabela; baina bazkaldu ostean zabaldu egiten dira eta momentu

hori aprobetxatu behar da, kultura munduan murgildu daitezen. Eta, egia esateko, sumatu dogu bazkaltzera ez ezik beste gauza baten bila be etortzen dala jendea gurera. Pozgarria da guretzat, benetan.

Lehengo eta oraingo Derio

Aukera falta, gogo falta, arrazoi falta dala edo ez dala, batzutan gatz egiten jaku atzera begiratzea. Halan be jakina da, jatorkuna hobeto ulertzeko-edo, gure arbasoak zertan ibili ziran jakitea derrigor-derrigorra dana.

Testua: Ziertza
Sanz, Ohiana
Astobieta eta Atotz
Goikoetxea /
Argazkiak:
Bestorrene eta
Iñaki Gaminde



Liburuaren egileak: ezkerretik eskumara, Ester Elgoibar, Iñaki Gaminde, Jon Gaminde, Ziertza Sanz, Atotz Goikoetxea eta Oihana Astobieta

Derioztarren euskara. Harritzekoa bada be, batek baino gehiagok “holangorik ” ba ete dagoan galdetu deusku; galdera horrek erantzun bakarra baino ez dauka: zelan ez ba!

Orokorrean, euskara hizkuntza gitxitua da Derion. Herriko egungo erdialdetik pasioan ibiltea nahiko da baieztapen hori benetakoa dala ikusteko. Baina halan be, oraingo errealidadea ez da beti holangoa izan: Derioztarren euskara liburuaren sarreran aipatzen dan lez, 1913an Derio osatzen eben 300 lagun haren berbetea euskerea izan zan. Euskerea erabilten

*“Auzokide eta kaletarrok
batu eta barrero familia
bakarra osatzeko
esperantzaz dago herria”*

eben danetarako. Ez eben hiztegiarik behar laneko tresna, naturako elementu eta abarren izenak euskera ederrean berbetartzeko. Berez ekien eta!

1913tik 2006ra, 93 urte. 300 biztanletik 5000ra: betiko Derioztarrak, inguruko herrietatik etorri barriak, etorkinak.

Ordurik hona belaunaldi bat baino gauza gehiago pasatu diran arren, 300 lagun haren “zati” bat geugaz dago oraindino darabilgun Derioko berbetan.

Berbeteak egin eban herria eta, neurri

Informante bikainak

Historia liburuetan idatzita topatzen dogu orain. Lehen, halan be, familia sutondoan batzen zan, eta alkarrerik kontatzen eutsiezan hainbat gertaera eta pasadizo. Eta oraindino be, Derioko etxe batzutan, ahoz kontatzen dabez antxinako kontuak. Guk, lekuko on batzuri eskerrak, Derioko historia-ren zati txiker-txirker bat batu dogu.

Suerte itzela euki dogu holango herritar jatorrak ezagutu doguzalako eta euren mundua ikusteko modua erakutsi deuskuelako. Zoritxarrez, batzuk joan jakuz (Antonio Amondarain eta Juanita Amondarain), baina euren lekukotasun ederrak itxi deuskuetz, gura dauanak entzun, irakurri zein ikusteko moduan. Eskerrak horre-ri! Zelan jakingo genduan osterantzean, lehen Derion taberna bi baino ez egozala? Edo mutil gazteek soka-jantzan egiten ebela auresku eta atzeskuak jantzan eginez? Honeek guztiok eta askoz be gehiago topatu zeinkez, irakurle, “Derioztarren euskara” liburuan.



Liburuaren aurkezpena, Larrabari baserrian



Derioko Aldekone auzoa

baten, berbeteak desegin dau. Bizitza guztia Derion igaro dogun askoren gogoa izango leiteke heldu barriek herrizat hartzea, ez alkarren ondoan dagozan etxe multzotzat. 1913ko Deriok berezko izatea eukan, eta gaur be, lausoago egon arren, izate horrek badirau. Izan ziran eta geu be bagara!

Baserrika zein familiaka banatzen zan herri hark, kale ugari daukaz egun. Eta deiadarka dabil, ezezagun sentitzen da; bere seme-alabek ez dabez haren berbak ulertzen, ez dabe haren izana ezagutzen. Auzokide eta kaletarrok batu eta barrero familia bakarra osatzeko esperantzantzaz dago herria. Horretarako, urrezkoak dira liburu honetan batu doguzan herritarran kontuak, bizipen eta esperientziak. Euren berbak geure egin beharko geunkez, egunerokoan erabili, ezin daikegulako altxor hori galtzen itxi.

Pasadizoak

Idea bat egin dagizuen zera esango deusuegu, alde batetik liburua eta bestetik CD-ROMa argitaratu doguzala. Liburuan informanteek kontatutako pasadizoak batu doguz, gaiaren arabera antolatuta; amaieran berbeteari buruzko lana erantsi deusagu, aditz, esakune, eta abarri buruzko informazioagaz. CD-ROMean barriz informanteak ikusi daikeuz kankak abesten edo euren gaztaroko anekdota dibertigarri eta interesgarriak kontetan. Halan, Derioko euskera bizi-bizia ikasteko modu erabilgarria daukazue esku artean.

Grabaketak egiterakoan hainbat istorio interesgarri entzun doguz; hementxe adibide bat: antza danez, lehen, sorginak oheko burkoan sartuten ziran batzutan. Orduan, burkoa ikutu egin behar izaten zan, eta barruko ardiulean formea zelangoa zan igarri; antza batu egiten ziran uleok, eta batzuk itxura bat eukiten eben, beste batzuk esaterako oilarrarena, eta... ene! sorgin-formea be bai batzutan. Orduan, erre egin behar izaten zan burkoa, ahalik arinen, sorgina handik atarateko.

Holango hainbat eta hainbat kontu plazaratu doguz informante jakintsuei esker, eta, gustuko izan badozue, ez zarie damutuko Derioztarren euskara irakurteaz.

Derioko Udala



Pelota eskola sortu da Loiun

Pelota eskolarik ez zuen Txorierriko herri bakarra izan da Loiu orain gutxira arte. Horrela, bada, otsailaren 10ean eskola sortu zuten Larrondoko frontoian.

“Bizkaiko Pelota Federakuntzak urtarrilean hartu zuen frontoiaren ardura eta pelota eskola sortzea Udalak eta Federakuntzak jarritako helburuenetarikoa bat izan da”, azaldu digu Iker Amarika frontoiaren arduradunak. Pelota eskolan bost urtetik 11 urtera bitarteko 12 mutiko eta neskatxo bat daude eta hiru kategoria osatu dira: ume- txoak, umeak eta gaztetxoak.

Herrian zehar hainbat bando jarri eta herriko mutiko eta neskatxo guztiei gutun bana bidali zitzaion, eskolan parte hartzea animatzeko. “Hori ikasturtearen erdian egin zela kontuan hartuta, oso erantzun ona izan dela esan dezakegu. Dena dela, irailean-edo kanpaina berria egingo dugu, eskola indartzeko”. Ostiraletan, arratsaldeko 5etatik 7etara egiten dituzte entrenamenduak, baina hurrengo ikasturteari begira, asteen bitan egiteko asmoa dute. Horrezaz gainera, eskolako zortzi ikaslek Txorierriko Txapelketan parte hartuko dute. Txapelketa martxoaren amaieran hasi

eta ekainean bukatuko da.

Txorierriko frontoirik modernoena

Larrondoko frontoia pasa den urteko apirilaren 23an inauguratu zen eta abendura arte enpresa pribatu batek hartu zuen horren ardura. Urtarrilean bertako Udalak eta Bizkaiko Pelota Federakuntzak hitzarmen bat sinatu eta azken horrek pelotalekuaren kudeaketa hartu zuen. Halaber, hainbat helburu ezarri zituzten: pelota eskola sortzea, herriko ikastetxeetako umei zuzendutako pelota-ekintzak egitea eta profesional zein afizionatu mailako partidak antolatzea.... Beste alde batetik, Bizkaiko Selektioko kadeteek entrenamenduak bertan egiten dituztela aipatzekoa da.

Frontoia estalia da, erregelamenduzkoa, eta 36 metro ditu; erabat egokia paleta laburrean zein eskupelotan aritzeko. “Udalak oso apustu ona egin du pelotaren alde. Larrondokoa Txorierriko frontoirik onenetarikoa da eta estrukturari eta disei-

Larrondoko frontoia

●Ordutegia:

Asteleheneetik ostiralera: 14:00etatik 21:00etara

Larunbatean: 10:00etatik 14:00etara

Igandean: 11:00etatik 14:00etara

●Tarifak:

Erroldatuak: 8,50€ argiarekin / 6€ argi barik

Gainontzekoak: 12,50€ argiarekin / 10€ argi barik

16 urtera arte eta erroldatuak: dohainik
Gainontzekoak: 5,50€ argiarekin / 3€ argi barik.

Elotxelerrri, 4

Telefonoa: 94 453 87 50

nuari erreparatzen badiegu, modernoena. Era berean, merkea da beste batzuen aldean eta oso parking handia du; beraz, ez dago autoa aparkatzeko arazorik”, esan digu Amarikak.

Testua eta argazkiak: Itxaso Marina



Pelota eskolan bost urtetik 11 urtera bitarteko 12 mutiko eta neskatxo bat daude.



Idoia Gordon, pilotaria



“Neskeentzako pilota eskola martxan jarri nahi dugu”

Larrondo pilotalekuaren erabiltzaile dugu Idoia Gordon loiutarra. Familiarengandik datorkio zaletasuna eta 1998an federatzea erabaki zuen. Neskak 27 urte ditu eta ez da profesionala izango, ziurrenik; hala ere, bidea ireki nahi die atzetik datozen neska pilotari gazteei

Testua eta argazkia: Gaizka Eguskiza

Zer deritzozu Larrondoko pilotalekuari? Partida batzuk jokatu ditut bertan eta zorua eta kontrakantxa apur bat latzak izan arren, oro har ondo dagoela uste dut. Duela gutxi, frontoi horretan jokatu dugu Munduko txapeladunen aurka eta auzokideek berriro bueltatzeko eskatu ziguten. Dena den, kanpoko frontoian aritzen naiz normalean.

Zer uste duzu Larrondon zabaldu berri den pilota eskolari buruz?

Oso ondo dago, baina mutilei, batez ere, dago zuzenduta. Ondorioz, kide bat eta biok neskeentzako eskola bat martxan jartzeko aukera aztertzen gabilta datorren urteari begira. Ez gaude ziur, oso lanpetuta baikabiltza eta egitekotan, ondo egin

behar da. Horrek esan nahi du lekua aukuratu behar dugula, erakundeekin harremanetan jartzea dirulaguntzak eskatzeko...

Eta zuk non ikasi zenuen jokatzeko? Noiz hasi zinen?

Betidanik jokatzeko dut. Nire familian zaleatasuna handia dago: gurasoek, ahizpak, osabak... jokatu egiten zuten.

Zenbat txapelketa jokatzeko dituzu urtean? Non eta noizero jokatzeko duzu?

Normalean txapelketa pilo batean hartzen dut parte astebururo Euskal Herri mailan. Intxaurren eta Lizarran egon naiz arestian, esate baterako.

Nolako maila dago Bizkaian?

Ona da. Nafarroan dute mailarik altuena,

“Sorua eta kontrakantxa apur bat latzak izan arren, oro har ondo dago Larrondoko pilotalekua”

agian, baina apurka-apurka gero eta hobekiago, gero eta gogorrago entrenatzen ari garelako. Nik egunero entrenatzen dut. Lan bi ditut, bata goizean eta bestea arratsaldean, eta bitartean partidak jokatu edo korrika egiten dut. Normalean aire libreko frontoietan entrenatzen dut, estalita daudenak nahiko garestiak direlako. Gainera, Abadiñora joaten naiz asteartero, bertan Federakundeak kantxa alokatzen digu eta.

Zeintzuk dira zure helburuak aurretik?

Ahalik eta partida gehien irabazten saiatuko naiz Euskadiko selekzioak berriro niri deitzeko. 2004ko Gabonetan Argentinan zein Uruguain egon ginen 10 egunean. Partida batzuk jokatu eta irabazi egin genituen. Ederki hartu gintuzten eta primeran pasatu genuen. Giroa oso polita izan zen.

Zein da zure asmoa pilotan?

Profesionala izateko aukera izan nahiko nuen. Egunen batean gure atzetik etortzen diren neska gazteek izango dute lortzeko aukera, agian.

Alde handia dago mutil eta nesken artean pilotan?

Eskuz bai, batez ere 12 urtetik aurrera. Orduan, mutilak indartsuagoak dira. Hala ere, tresnak erabiltzen ditugun artean aldea ez da horren nabarmena. Izan ere, teknika ere inportantea da eta geuk ere pilota gogor astintzen dugu.

Berdintasunaren aldeko borrokan, adibidez, hartzen al duzu zeure burua?

Neurri batean bai. Jolaskide batzuek neskatilak entrenatzen dituzte eskoletan. Gauzak irakasten saiatzen dira haiek jokatzen jarraitzeko. Guk izan ez duguna, azken batean. Guk jokatzeko jarraitu dugu gustukoa izan dugulako, besterik ez.

Zein da zure pilotaririk kutunena?

Martinez de Irujo da gehien gustatzen zaidana, grina handia daukalako.

Teknologi Parkean sortu barri dan ekimena dogu

Aisiatek, astialdirako alkartea



I. Padel txapelketa: Iratxe de Madariaga eta Txaber Ouro (Parkeko zuzendaria) partehartzailekaz

Joan dan urteko zemendian jaio zan Aisiatek, Bizkaiko Teknologia Parkeak martxan jarri dauan aisialdirako jarduerak antolatzen dituan alkartea. Deustuko Unibertsitateko Aisiazko Ikaskuntzen Institutuak prestatutako ikerketa-lan bat oinarri hartuta, eta bertoko behargin batzuk sustaturik, lan-jardunaldiak amaitu osteko orduak kirol eta kultura arloko aktibitate ezberdinetan emoteko, eta batez be, enpresa ezberdinetan lanean dabilzen beharginen arteko hartuemonak lotuteko sortu da Aisiatek alkartea. Mus txapelketa batez ekin eutson bere ibilbideari zemendiaren 11n, arrakasta haundiz ganera, eta orduetik hona, beste hainbat jarduera burutu dabez, herri

lasterketea, padel txapelketea eta ardo dastaketeak, besteak beste. Aitatu dogunez, parkeko enpresa ezberdinetako beharginek bultzatu dabe ideia hau, bai eta jarduerak antolatzeko



aisiatek
Asociación recreativo cultural
Kultur eta aisialdi elkarteak

“Ekimenaren sorburuan bertoko langile-erabiltzaileen arteko hartuemonak sendotzeko eta areagotzeko asmoa dago”

zuzendaritza talde bat izendatu be. Zuzendaritza taldekidea eta Presidentea dan ITP enpresako Kanpo Harremanetarako arduradun Iratxe de Madariagagaz egon gara berbetan, ekimen honen nondik norakoak emon deiguzan.

Aisialdirako alkartea sortzearena ideia interesgarria emoten dau, baina non edota nori bururatu jakon?

Beno, lehenengo eta behin esan behar dot alkarite honetako presiden-

“Zenbat eta jente gehiago sartuta egon, orduan eta proposamen ugariago eta aberatsagoak batuko doguz”

tea izanik, zuzendaritza taldeko ordezkari modura nabilela, baina Zuzendaritza Taldean Parkeko zuzendaria eta beste enpresa batzuetako ordezkariak be badagoz. Ekimenaren sorburuan bertoko langile-erabiltzaileen arteko hartuemonak sendotzeko eta areagotzeko asmoa dago. Hau dala eta, astialdiko jarduerak batuko zituan projektu baten bideragarritasuna aztertzea eskatu eutson Parkeak Deustuko Unibertsitateko Aisiazko Ikaskuntzen Institutuari. Ikerketa-lanaren aldeko emoitza ikusita, aurrera egin zan. Parkeko zuzendaritza egitasmo honetan parte hartu eta lagunduteko inbitazinoa jaso genduan Parkeko hainbat enpresatan lan egiten dogunok, eta orduetik hona, hor gabilz, aktibidade, gure ustez, erakargarri eta interesgarriak antolatzen.

Alkaritean edozeinek parte hartu ahal dau?

Bai, jakina. Alkaritean partehartzeko eta egin daitekezan jarduera ezberdinak planteatzeko kondizino bakarra dago, izena eta emaila emotea, eta bazkide egitea, ez da ordainketa-kuotarik ordaindu behar. Dagoaneko berrehun bat bazkide daukaguz. Hasikera baten Teknologia Parkeko enpresetako beharginak diranak dagozte izena emoten, kanpotar batzuk baita, baina gerora begira batek daki. Zenbat eta jente gehiago sartuta egon, orduan eta proposamen ugariago eta aberatsagoak batuko doguz. Azken baten, lortu gura doguna zera da, beharraz aparte alkar ezagutzeko beste eremu batzuk sortzea, Parkea lan egiteko eta, aldi berean, aisiaz gozatzeko tokia bihurtzea.

“Hainbat enpresei eta Parkeko langile izanda laguntza-lanetan ibili diranei esker antolatu ahal izan doguz aktibidadeak”

Labur-labur, kontaiguzuz zeintzuk izan diran orain arte antolatu dozezan aktibidadeak

Zemendiaren 11n Aretxarte Hotelean antolatu genduan Mus txapelketatik hasita, beste hainbat gauza egin doguz. Abenduan, gabon aurreko astean, Padel txapelketa arrakastatsua e-gin zan, partehartzaille askogaz eta padel jokalarik ospetsuak bertoratu ziralarik. Aste berean, Sukaldaritza ikastaroa egin zan Aitor Elizegiren Gaminiz Jatetxean, hemen be partizipazino itzelagaz. Jende asko interesaturik egon zanez eta plaza kopurua txikia izan zanez, holango ikastaroak lantzean behin –bi hilabetero– egitea pentsatu dogu. Badakizue, gure herri honetan jan-edanak zelango burukomina emoten deuskun! Ardaudastaketea be organizatu dogu zezeilaren azken astean, Luis Cañas Upeldegietako ardaudak probatzeko egozalarik. Bigarren dastaketea be antolatu dogu Martxoaren 13an, 2005eko Urrezko Sudurraren Saria irabazi eban Itxaso Aranek gidatuta. Honelako probak hilean behin egitean pentsatu dogu. Ezin ahaztu ezelan be urtarrilaren 22an ospatu zan I. Herri Lasterketea, partizipazino itzelagaz hemen be. Antzeko probetan ibiltzen diran korrikalariak hurbildu ziran Parkera, ehun eta hamar bat, Parkeko langileak izan zein

izan ez.

Aipamen berezia merezi dabe jarduera honeek guztiak babesten dabilzen enpresek, eurei eta Parkeko langile izanda laguntza-lanetan ibili diranei esker antolatu ahal izan diralako aktibidade honeek guztiak.

Eta, hurrengo hilabeteetarako, zer daukazue pentsatuta? Badozue itxita zeozer?

Bai, hemendik udara hainbat gauza itxita doguz. Remelluri edo Marqués de Riscal Upeldegietara bisita bat egitea; Rioja Alta Upeldegietako ardauden dastaketa bat egitera apiril edo maiatz aldean; beste sukaldaritza ikastaro bat baino oraingo honetan Eneko Atxagaz, Larrabetzuko Azurmendi Jatetxeko sukaldariagaz; maiatzean argazkigintza lehiaketea; alkarteko web-gunea egiteko lehiaketea martxan jarriko da laster baten, Parkeko langilegora mugatuko dana; ekainaren 2an Bizkaiko Teknologik Parkeko 1. Golf txapelketea ospatuko da Artxandako Golf Klubean, 18 zulotako ibilbidean. Ganera, esan behar da, egunotan Tai-tsi ikastaroa egiten gabilzala, Derioko Doyan Gimnasioan.

Bueno, honeek eta gure kolaboradoreei bururatzen jakiezan guztiak antolatzen saiatuko gara.

Amaitzeko, gauza bat: zenbat eta partehartzaille gehiago egon, ideia eta aukera zabalagoak eukiko doguz, Parkeaz beste modu batera gozatzeko eta alkar ezagutzeko abaguneak zabalduz.

**Izena emoteko, sugerentziak eta proposamenak batzeko alboko helbide elektronikora jo behar da:
aisiatek@parque-tecnologico.net**

Testua: Fernando Larrondo / argazkia: Asiatek

Jatea obsesio bihurtzen denean

Munduko populazioaren %2a jatun konpulsiboa da eta zifra hori handituz doa. Janari-adizioa dutenek gaixotasun fisikoa eta emozionala dela diote; hala ere, medikuntzak ez du gaixotasuntzat hartzen.

Testua: Itxaso Marina



“Disgustu txiki batek, errieta batek... edozein gauzak bultzatzen gintuen jatera. Otorduen artean jangai-puskak hartzen hasten da eta konturatu orduko sabela beteta duzu. Hala ere, otorduak egiten dituzu aldeztu aurretik jatekorik hartu ez bazenu bezala edota gauean ohetik altxatu eta hozkailura joaten zara... Ezin duzu kontrolpean eduki”, azaldu digute Mirenek eta Iñakik (gezurrezko izenak). Txorie-rritar horiek jatun konpulsiboak dira eta Bilboko Jatun Konpulsibo Anonimoak elkartearen parte hartzen dute.

Jarrera horrek lodiera morbida sor dezake, baina beste eragin batzuk ere baditu gaixoengan: norberaren estimua gutxitzea, errudun-sentimendua, jenio txarra, atsekabea... “Eta horrek guztiorrek eragina du familiarengan. Ez dute arazoa ulertzen eta ezin digute lagundu. Eurek ere indargabe sentitzen dira”.

Mirenek eta Iñakik bazekiten arazoa zutela janariarekin, hala ere ez zuten azalpenik topatzen inon. Miren, adibidez, hainbat mediku eta psikologorengana jo eta erantzun bera jasotzen zuen beti: dieta egin behar zuela, depresio txiki bat zuela...

Janari-adizioaren berri komunikabideen bitartez izan zuten, “kasu batzuk eza-

gutu eta horiekin bat egin genuen. Elkartearen inon aurkitu ez ditugun erantzunak jaso ditugu, baita behar genuen ulermen ere”. Jatun konpulsiboaren lehenengo taldeak 1975. urtean sortu ziren Estatu Batuetan. Alkoholiko Anonimoak elkarteak dituen arauak jarraitzen diete. Horrela, bada, taldeetako partaideek elkarri laguntzen diote, euren arazoak eta esperientziak konpartituz. “Talde-terapia da eta bizitzaz gozatzen ikasi dugu, baikorrak izaten, jatea gustatzen zaigula, baina geure burua kontrolatzea gehiago gustatzen zaigula... Eta inportanteena: barne-bakea lortu dugu”.

“Jatun konpulsiboa betiko izango da eta taldearen laguntza ezinbestekoa da, berreturak gainditzeko”

Jatun konpulsiboa betiko izango da eta taldearen laguntza ezinbestekoa da, berreturak gainditzeko. Jatun Konpulsibo Anonimoak elkarteak talde bi ditu Bilbon eta beste bat Galdakaon.

Jatun Konpulsibo Anonimoak elkarteak

Telefonoa: 689 62 39 25


Bilerak

Bilbon, (Sabino Arana, 42 behe-ekerra)

martitzenetan, 10:00etatik 12:00etara
eguztzenetan, 19:00etatik 21:00etara

Galdakaoko Kultur Etxean:

eguztzenetan, 18:00etatik 20:00etara



AIKOR! aldizkaria Interneten

Egia esan, aspaldian dago AIKOR! aldizkaria Interneten: Lagatzuren web orrian ale batzuk eta www.aikor.com-en beste batzuk. Baina oraingoan era sistematikoan jarri gura izan da.

www.aikor.com martxan jarri zanetegi ideia asko izan dira: atari bat sortu, albiste elektronikoa bihurtu, eztabaidarako foroa martxan jarri... Dana helduko da, baina oinarritik hastea erabaki da: AIKOR! aldizkaria erabilgarri jarri Interneten.

Epe laburrean orain arteko zenbaki guztiak aurkituko dozuez (gehienak

badagoz). Aldizkariak osorik jaitzi ahal izango dira pdf formatuan, publizitate barik, arinago jaitzi ahal izateko. Argazkiak kalitate onean jaitzeko sistema be martxan jarriko da ondoan.

Zertarako? Galdu dozun ale zahar horretako artikulua irakurtzeko, hango argazki ha ikusteko... eta oso garrantzitsua deritxaguna: gure bailaratik kanpo, munduan zehar, dagozen txorierritarrek gure barri euki ahal izateko, edozein lekutan egonda be.

Zenbakia osoa fitxategi bakarrean dago eta nahiko "astuna" da. Jaitzi gura badozu, egin kasu bertan agertuko dan mezuari eta ez saiatu zuzenean zabalitzen, astunegia egingo dalako eta eskegitaz geratzeko aukera handiak dagozalako. Hobe da saguaren eskuinaldeko botoiari emon eta "gorde lotura horrela" edo antzekoa aukeratzea. Jaistea amaitzen danean, orduan bai, zabaldu eta irakurri.

Beraz badakizu, artikulua irakurtzen dozun hori, lagun bat hortik zehar eduki ezker, lehenbailehen bialdu eigiozu mezua www.aikor.com martxan dagoala esanez.

pdf formatua

Dokumentuak zein aldizkariak aurkezteko formatu estandarra bihurtu da gaur egun. Adobe etxeak sortutako formatua da eta fitxategi horreek zabaltzeko Adobe Acrobat Reader programa euki behar da instalatuta (edozein tokitik doan jaitzi daiteke). Ez saiatu Acrobat Reader-ekin dokumentuak aldatzen, ezinezkoa da-ta, bakarrik "Reader", irakurri, eta ikusi egin daitezke. Dana dala, irudiak eta testuak eskuratzeko aukera emoten.

Testua: Bestorrene

Euskaltzaleen sarea Txorierin

Euskararen inguruko gaitan alkarren barri izateko hainbat txorierritarrek posta elektronikoa erabiltzen dogu. Horretarako totoantxorierri@yahoo-groups.com posta-zerrenda erabiltzen dogu. Besteak beste, era azkar eta errez hori Txorierriko euskaltzaleen komunikazio bide bihurtzea gurako geunke.

Zeuren be erraz harpidetu zaitezke posta-zerrenda honetan. Oso erraza da! Debaldekoa da! Infomatuta egongo zara, besteak infomatutako dozuz! Egin zaitez harpidedun!

Zalantzak

ZELAN HARPIDETU?

1. Beste barik, helbidea bakarrik idatziz, mezu hutsa bialdu behar dozuz hona:

totoantxorierri-subscribe@yahoo-groups.com

2. Mezua helduko jatzu laster "yahoogroups" izenean: "Por favor confirme..." gaiagaz etorriko jatzuna.

3. Nahikoa da "erantzun/responder" egitea ezer aldatu barik. Laster konfirmazioa helduko jatzu.

4. Hortik aurrera, euskeraren gaineko edozein informazio beste guztiei bialtzeko totoantxorierri@yahoo-groups.com erabili daitezke, eta baita jaso be besteen mezua.

ZER DA POSTA-ZERRENDA BAT?

Posta elektronikoa (e-mail) helbide bat da. Behin harpidetu ezker, zerrendara edonork bialdutako mezua zeuri be helduko jatzu. Era berean, bertara bialduko dozuen edozein mezu, posta zerrendan harpidetuta dagoen beste guztiei.



Mal de ojo musika taldea

Mestizaiaren eredia

Otsailean Mal de Ojo musika taldea ikusteko aukera izan genuen Larrabetzuko Hori Bai gaztetxean. Adrian “rumbero” abeslari euskaldunarekin solasean izan ginen.

Testua: Ines Serrano / Argazkia: Aspi

Taldearen ibilbidea luzea da. Asko aldatu zarete urteetan zehar?

Mal de ojo 1993an sortu zen. Lagun batzuk batu eta gure kaxa hasi ginen kontzertuak egiten eta diskoak grabatzen. Duela gutxi Soraluzekeo Gaztelupeko Hotsak diskoetxearekin harremanetan jarri eta azken diskoa eurekin atera dugu. Orain gusturago gabil-tza elkarlanean: lana erraztu egin zaigu eta aukera gehiago dugu gure musika egiteko. **Rumbak euskaraz abestea “normalizat” dugu gaur egun; arraro xamarra hasieran...**

Musika mota hori jorratzen hasi ginen, apur bat zirikatze edo euskaraz bazogela edozein erritmotan egiterik jendeari adierazteko. Eta harridura horrekin jolas-ten genuen. Musika hori beti gustatu

zaigu; beraz, disfrutatu egiten dugu eta ongi pasatzea dugu helbururik nagusia. Eta bai, flamenkoa-eta euskaraz egitea nahiko bitxia zen hasieran; gaur egun, iriz-pideak irekiagoak dira musikan zein kulturako beste arloetan.

Badituzue entzule bereziak?

Gazteek ere gure musika entzun arren, gure adineko entzuleak ditugu gehienbat. Gazteek rock-a eta beste motatako erritmoak nahiago dituzte.

Musika ondo pasatzeko tresna duzue.

Musika bitarteko bat da ongi pasatzeko, ongi pasarazteko, geure buruari buelta pare bat emateko –baita ipurdiari ere-, egunerokotasunetik irteteko... Ez dugu geure burua profesionalizat hartzen: erdibidean gaude, kobratu egiten dugu jotzeagatik

–bestela, ezin izango genuen taldea mantendu-, baina jendearekin harremanetan egotea eta harreman horretaz disfrutatzea gustatzen zaigulako egiten dugu musika.

Abestiak euskaraz egiten dituzue nagusiki, nahiz eta gaztelaniazkoak ere egon.

Taldetik pertsona ezberdinak pasatu dira eta beste garai batean gure artean erdara gehiago erabiltzen bagenuen ere, euskara da gure harreman eta lan-hizkuntza gaur egun. Euskara naturaltasun osoz erabiltzen dugu kantak eta musika egiteko.

Zelako harrera izan duzue Euskal Herritik kanpo?

Andaluzian zirkuitu antzeko bat egin genuen eta harridura-puntu bat nabaritu zen. Badakizue, Cadizen euskaldun batzuk flamenkoa jotzen ikustea bitxia suertatzen da, baina gustura ibili ginen: jendeak ondo erantzun zuen eta guk ondo pasa genuen. Beste alde batetik, euskal jai antzeko jaialdi batean parte hartu genuen Bartzelonan eta ez zitzairen hain arraroa iruditu. Hotz xamar hasiera batean, baina giroa berotu egin zen azkenean.

Izan ere, zuen musika aproposa da giroa berotzeko.

Bai, musikak lagundu egiten du eta, horregatik, gure kantuak zuzeneko emanaldi-tera bideratzen ditugu, diskoak grabatzera baino gehiago.

Zirkuitu txikietan zabilzate orokorrean?

Txikiak eta handiak uztartzen saiatzen gara. Kontzertu gehienak plazetan antolatzen dira gaur egun eta horiek erdi hutsik izaten dira. Hori penagarria da. Nire ustez, bitartekoak bilatu behar dira, diru publiko eta pribatua erabiliz, zirkuitu txikiak sustatzeko.

Zazpi disko eta EP bat atera eta jarraitze-ko gogorik ez da falta.

Bai, gustura gabilta. Azken diskoan kolaborazio ugari izateaz gainera, tresna berriak sartu ditugu, tinbre ezberdinak bilatzeko asmoz... Beti dago non sakondu eta nola jantzi.

“Euskara naturaltasun osoz erabiltzen dugu kantak eta musika egiteko”

Gazteluko bideaz zertxobait

Baselizan aurkitutako hiliarria. Beste alde batetik, baselizaren leihotxo bat erromaniko aurrekoa da.

Testua eta argazkiak: Sabin Arana


Bideak Lezamarantz egiten du; Garaioltzatik Gurutze Santuaren ermitaraino eta bertatik Bilborantz, Zamudioko lurak zeharkatuz. Antzina, Bermeo eta Bilbo lotzen zituen bidea zen.

XVI. mendean, Jaurerriak interes handia zuen bidea mantentzeko. Horrela, bada, Gazteluko bidea egoera txarrean zegoenez Batzar Nagusiek hurrengo hau agindu zioten Larrabetzuko uriari: bere lurraldean zegoen bidearen zatia txukuntzeko, oinezkoek eta zaldiek arazorik gabe erabil zeaten. Baina uriari ez zitzaion interesatzen, izan ere, eurek beste bide bat erabiltzen zuten; Errege Bidea, hain zuzen ere. (Aipatzekoa da, zenbait agiritan azaltzen den moduan, XVI. mendean, Zin Bideak Bilbotik Larrabetzura eta bertatik Goikoeliazalderantz eta Aretxabalaganerantz egiten zuela. Eta bermeotarrek bide hori erabiltzen zutela Gaztelarantz).

Gazteluko bidea zaharragoa da; bizigu-neak goiko aldeetan izan zireneko garaikoa, zalantza barik. Bidea Justo eta Pastor edo Xalbador Deunaren baseliza zaharren ondotik igarotzen da. Baseliza hori Larrabetzuko lehenengotariko bat da, eta Santiagoko bide zaharrean kokatuta dago.

Bide zaharra biderik onena zen bere garaian, Gaztelumendi oso zeharka hartzen

zuelako eta aldats gora igoera leuntzen zuelako Zandonara arte. Horrezaz gainera, Zugaztitik zetorrenarekin bat egiten zuen Aretxabalaganera iritsi baino lehen. Horregatik, Zugaztiarrek kontrolpean izan zuten XIV. mendera arte. Aranguren-darrek ere hurbiletik begiratzen zuten; izan ere, Arangune baserria bidetik gertu zegoen eta dorrea izanikoa zen aspaldian.



LEHIAKETA

Sukaldaritza

Marrubi-broxeta txokolate eta natillekin

Osagaiak 4 lagunentzat:

- 16 marrubi
- Koilarakada 2 sesamo
- 100 g. txokolate (urtzekoa)
- Menda-hostoak

Natillak egiteko:

- Litro erdi esne
- 3 gorringo
- 3 koilarakada azukre
- Bainila-adar 1



Prestatzeko era:

Esnea (gorde apur bat) lapiko batean egosten jarri, azukrea bota eta bero dagoenean bainila-adarra botako diogu. Katilu batean gorde dugun esnea eta gorringoak nahastu eta nahasketa hori lapikora botako dugu, loditu arte eragiteari utzi barik.

Beste alde batetik, marrubiak garbitu eta zotzetan sartuko ditugu. Broxetaren amaieran menda-hosto batzuk jarriko ditugu.

Txokolatea urtu eta ontzi leun eta luze batean zabalduko dugu. Broxetak txokolatez estali eta gainera sesamo apur bat botako diegu. Ostean, hozkailuan sartuko ditugu, txokolatea gogortzeko. Beste ontzi batean natilla apur bat jarri, eta txokolate-hari batzuk egingo ditugu platera dekoratzeko; broxetak gainean jarriko ditugu.

Onddo salteatuak foiearekin eta Maldon gatz-txirbilekin, plantxan

Osagaiak:

- 300 g. onddo
- Koilarakada bi oliba olio
- Txorrotada bat txakolin
- Foie-xerra bi (cm 1etakoak)
- Maldon gatza
- Tipulina (platera apaintzeko)

Egiteko era:

Onddoak ondo garbitu eta xerratan ebakiko ditugu (xerra horiek zentimetro erdikoak izango dira, gutxi gorabehera). Ondoren, gatza botako diegu.

Zartagin batean olio berotu eta onddoak erregosiko ditugu. Txakolina bota eta alkohola lurruntzen denean, su-ganetik kendu egingo dugu.

Beste zartagin batean foiea alde bitan gorrituko dugu minutu 2an. (Ez dugu oliorik botako, foieak berak nahiko koipe duelako). Onddoak eta foiea plater batean jarri eta Maldon gatz-txirbilak botako dizkiegu gainera. Tipulin-adarrak platera apaintzeko erabiliko ditugu.

Ankapalu sagardotegia, Larrabetzun



LIBURUAK

Txuntxuneroak

Karlos Sánchez Ekiza. Altaffaylla

Amaren eskuak

Karmele Jaio. Elkar

Ecce homo

Laura Mintegi. Txalaparta

Nomadaza kantari doaz

J. Sagastizabal

Aguafuertes vascas

Robert Arlt

Lile

Peru Magdalena

Arotzaren eskuak

Alberto Ladron Arana

MUSIKA

Ehiztari. Ehiztari. Erromoko metal taldearen lehen diska.

Amorrua. Iker Goenaga



Saredun eskua. Rafa Rueda

Gau giro. Kupela taldea. Festarako eta dantzarako musika. Kupela taldea Urola bailarako Zabalek, Larrañagak eta Berastegik osatzen dabe.

DENBORA PASA

LETRAZOPA

G	T	O	J	K	Ñ	I	H	Y	B	O	P	G
R	P	A	E	M	O	G	A	R	I	T	A	O
M	K	L	A	J	P	I	J	H	K	X	M	I
I	R	D	O	U	A	X	F	G	G	I	B	T
N	U	R	B	K	J	Ñ	X	S	F	R	Ñ	I
A	R	R	E	T	X	I	K	O	H	R	E	B
A	Z	Ñ	S	D	R	T	F	U	G	I	L	E
T	R	B	T	J	A	U	T	Z	I	N	H	R
P	F	O	S	O	E	R	K	H	Y	D	N	E
Z	Y	E	X	K	D	R	S	A	A	O	L	A
S	U	T	L	E	R	I	G	U	M	L	D	Y
T	O	N	F	M	D	E	B	M	X	E	I	N
B	Ñ	Y	X	L	X	O	N	E	O	A	M	Z

A	G	T	P	D	M	H	U	B	F	I	B	U
R	F	E	O	A	K	G	G	M	T	B	F	D
F	R	E	G	T	B	B	A	O	D	C	P	E
L	A	S	E	N	A	Z	T	N	I	A	I	A
D	U	Y	B	S	R	U	A	H	X	Y	N	M
Z	J	T	F	R	A	E	P	D	H	H	J	A
K	T	R	S	J	N	U	J	P	O	I	L	G
B	A	S	S	T	T	R	A	G	V	K	K	O
T	X	F	G	P	Z	I	L	M	N	O	Z	I
M	L	S	I	G	A	Z	H	E	P	N	Z	A
U	Z	X	O	M	N	R	M	J	I	Y	M	Z
Y	Ñ	M	A	T	E	I	Ñ	Ñ	M	Y	L	
N	J	L	K	K	O	N	J	O	O	H	N	X

Aurki itzazu goiko letrazopan umeen **7 olgetako eren izenak***. Kontutan hartu Txorierrin esaten dan moduan idatzita dagozela.

* "Derioztarren euskara" liburutik jasoak.

Ezkerraldean AIKOR! 46. zenbakiaren letrazoparen erantzuna. AIKOR! aldizkarian portada izandako 7 emakumeen izenak.

Agenda

Antzerkia eta filmak

Zamudio

-Torrente 3, apirilaren 2an; *La isla*, apirilaren 9an, eta *La leyenda del zorro*, apirilaren 30ean. Guztiak 18:00etan, dorrean.

Larrabetzu

-Ipuin kontalaria: *Misterioak*, Apika taldearen eskutik. Apirilaren 28an, 17:30ean, Anguleri kultur etxean.

Azokak

Larrabetzu

-Txakolin Eguna, apirilaren 9an, 10:30etik aurrera: 50 postu, topa ofiziala, bertsolariak...

Erakusketak

Sondika

-Jaietako kartelak, apirilaren 3tik 18ra, liburutegian.

Zamudio

-*I-Corpi-Sferici*, Gilberto Frigolent italiar artistaren koadroak. Martxoaren 24tik apirilaren 7ra, dorrean.

Larrabetzu

-*Sua nahi, Mr Churchill?* liburua, Koldo Izagirrerren eskutik. Apirilaren 6an, 20:00etan, Anguleri kultur etxean, Arrekikili euskara elkarteak antolatua.

Ikastaroak

Sondika

Komunikazioa eta autoestimua, maiatzean. Izena emateko epea: apirilaren 3tik 7ra, liburutegian.

Lezama

Sukaldaritza, Goitioltzako txokoan. Apirilaren 3tik ekainera arte. Astelehenetan, bi asterik behin.

-Informatika eta Internet, urriaren 26tik abenduaren 21era, goizez eta arratsaldean, KZ gunean. Emakumei zuzenduta.

-Zaintzen ikasi, azaroaren 2tik abenduaren 21era. Pertsona zaharrak eta ezgaituak zaintzen dituztenei zuzenduta.

Larrabetzu

-Globoflexia, azaroaren 16an, 17:00etatik 19:00etara, ludotekan.

Irteerak

Sondika

-Sabigain, apirilaren 2an, Udalak eta Goronda Gane ikastetxeko guraso elkarteak antolatua.

Derio

-*Holiday on ice* musika ikuskizuna ikustera. Apirilaren 8an, 18:00etan, BECen.

Lezama

-Sierra de Albarracin, apirilaren 13tik 16ra, Gailur mendi taldeak antolatua.

-Umeentzako irteerak, apirilaren 20an eta 21ean. Izena liburutegian eman behar da.

Zamudio

-Les Luthiers taldea ikustera, apirilaren 7an, 21:00etan, Arriaga antzokian.

-Arrateko igoera, apirilaren 8an, Racing elkarteak antolatua.

-Benidorm, apirilaren 22tik maiatzaren 5era. Jubilatuta eta pentsiodunentzat.

-Izaba, apirilaren 28tik maiatzaren 1era, Arroeta mendi taldeak antolatua.

Kirolak

Lezama

-Kiroldegiko I. Esku Pilota Txapelketa (afizionatuentzat), apirilaren 29an, Udalak eta Hiru Ber Hiru kirol zerbitzuak antolatua. Izena emateko epea: apirilaren 21era arte, liburutegian.

Bestelakoak

Sondika

-XIII. Argazki Rallya, apirilaren 23an, 10:30ean, Artebe kiroldegian.

Lezama

-Mikel Zarateren omenez egindako DVDaren aurkezpena, apirilaren 7an, 19:00etan, Kultur Aretoan.

-Herri Urratsera irteerarako izena emateko epea: apirilaren 24tik 28ra, liburutegian.

Zamudio

-Pazko jaiak antolatzeko batzarra, apirilaren 4an, 19:00etan, Udaletxean.

Larrabetzu



-Liburuen Azoka Txikia, apirilean, 16:00etatik 20:00etara, liburutegian.

-Irakurle ona zara? Liburuen zozketa mailegarien artean, apirilean, liburutegian.

-Gazteentzako Informazio Bulegoa, apirilaren 3an eta 24an, 16:00etatik 20:00etara, liburutegian.

-Bizkaiko Bertsozale Eguna'06, apirilaren 8an, 12:00etatik aurrera: erronda musikala tabernaz taberna, herri bazkaria, bertso saioa, erromeria...

-Herri Urratsera irteerarako izena emateko epea: apirilaren 24tik 28ra, liburutegian.

-Els Joglars taldearen *En un lugar de Manhattan* lana ikusteko sarrerak: apirilaren 24tik aurrera liburutegian.